

PLaza

44 ■ Felipe Juaristiren nobela berria

» Iraganak eragin dizkien zauriak itxi nahiak batzen ditu
'Ez da gaua begietara etortzen' obrako protagonistak.



Mikel Laboa

«Barnean sortutako zerbait gustatzen bazait, atera behar dudala uste dut»

IRUNE BERRO
Lekeitio

Emeki-emeki igo ditu Lekeitioko udaletxeko eskaile-
rak Mikel Laboak (Donostia, 1934). Mari Sol Bastida emaztearekin iritsi da Bizkaiko kostako herrira. Urduri. Zaila egiten zaio jendaurrean mintzatzea. Eta emazteak halako egunetan behar duen babesa eta beroa ematen dio. Laboaren laguntzaile fina da Bastida, aholkulari nekaezina, jarraitzaile sutsua. Izugarri mires-
ten du senarra duena. Eta hark

Mikel Laboaren ildorik experimentalaren ondorio diren abestien bilduma, 'Lekeitiok' izeneko diskoa, plazan jarri du Elkarrek, kantuen bertsio argitara gabeak jasota.

azaldu dizkie *Lekeitiok* diskoaren nondik norakoak aurkezpenera bildutako kazetariari.

Laboak 1988an ateratako *Lekeitiok* disko bikoitza CD euskarri-
ra egokitu du Elkarrek. Eta lan hori aurkeztu zuen musikariak atzo, Lekeition. Ekitaldiak «musikari eta lagun handiak» batu zituen: Xabier Montoia, Ruper Ordorika, Josetxo Silguero, Iñaki Salvador...

Lekeitiok diskoko abestiek Laboaren «esentziarik intimoena» jasotzen dute, Anjel Valdes Elkarreko editorearen aburuz. Eta Basti-

dak adierazi duenez, Laboak jorratutako «biderik experimentalaren emaitza» dira.

«Mikelek hiru ildori jarraitu die bere ibilbidean», azaldu du Bastidak; «1962an herri tradizioko abestiak berreskuratzeari eta interpretatzeari ekin zion. Eta 1966an, abesti berriak sortzeari, hemengo eta kanpoko olerkarien lanekin. Poema asko kantu bihurtu zituen. Bere faserik experimentalena, ordea, 1968an abiatu zuen. Orduan egin zituen *Lekeitiok* bilduma osatzen duten lehendabiziko kantuak. Adierazpide berri baten bila zebilen. Eta ondorioz, kantu horietan, musikak eta soinuak, keinuek eta mugimenduek indar handia daukate. Abesti experimental horiek osatutako serieari *Lekeitiok* izena jarri zion. Ziurrenik, hala ere, Mikelek egin ditu esperimentu gehiago beste disko batzuetan».

Elkarrek oraintsu atera duen diskoan, 1988ko lan bikoitzean jasotako kantuak ez ezik, Laboaren beste pieza batzuk ere azaltzen dira. «1988an atera genuen diskoak epez aurrekoa izan zen, eta seriearen ikuspegi osatuagoa eskaintze

aldera bildu ditugu beste kantu batzuk lan berrian», argitu du Bastidak. Ohartarazi du, gainera, *Lekeitiok* disko berrian ez batzekotan, betiko galduko lirakeela piezetako batzuk, «orain arte ez baitira inoiz argitara eman».

Hala, *Baga-biga-higa* kantu enblematikoaren hiru bertsio sartu dituzte disko berrian: 1974ko grabazioa, 1992an Iñaki Salvadorrek eginiko bertsio instrumentala eta 1999an grabatutako bertsio sinfonikoa. Halaber, *Gernika*-ren hiru bertsio dakartza *Lekeitiok* lan berriak. Lehen bertsioaren bi grabazio; sarrerarik gabea bata, 1976an Suediako Telebistak grabatutakoa, eta 1988ko grabazioa bestea, kantua osorik jasotzen duena. 1999ko bertsio sinfonikoa da hirugarrena.

Lekeitiok izenburupean bildutako abestietan, oro har, ohiko moldeak ekidinez, soinu eta melodiekin tartekatzen diren hitzak azaltzen dira, askotan, haien zentzua galduta, eta keinuarekin eta mugimenduarekin bat eginda.

Piezetako batzuk «Lekeitioko hizkeraren musikalitatea» dutela